



❖ INAUTERIAK

Balorazioa egiteko bilera asteazkenean

Inauterietako balorazioa egiteko bilera izango da asteazkenean, 19:00etan, Biterin. ||

❖ PELOTA -

BINAKAKO TXAPELKETA

Olaizola IIak eta Mendizabal IIak 22-20 galdu zuten

Olaizola II-Mendizabal IIak Irujo eta Beroizen aurka 22-20 galdu zuten atzo, eta ondorioz, oso zaila izango dute semifinaletarako txartela eskuratzea. Partidu bakarra geratzen zaie eta hori behar beharrezkoa izango dute irabaztea aukerarik izateko. ||

❖ GAZTE ASANBLADA

Martxoaren 6an Akelarrea egingo dute Antiguan eta apuntatzeko dei egin dute

Gazte Asanbladak Akelarrea egingo du martxoaren 6an Antiguan, Emakume Langilearen Egunaren harira, eta apuntatzeko zerrenda jarri dutela azaldu dute. Izena eman daiteke Akerren, Txilin, Garinen eta Ekosen. Animatzeko dei egin dute. Ostegunean, entsaioa izango da 20:00etan, Goiz Eguzkin. Eguraldi txarrarekin, Atsegindegin izango litzateke. Materiala duenak ostegunean eramateko eskatu dute. ||

❖ ELIZATXO IKASTOLA

Guraso topaketak 6-8 urteko haurren gurasoentzat bihar

Elizatxo Ikastolako Elkarbizitza Batzordeak guraso topaketak antolatu ditu: *haurren garapen psikologikoa eta aita-amen garrantzia seme-alaben heziketan* izenarekin. Joan den astean izan zen lehenengo saioa eta bihar, 6-8 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoen txanda izango da. 16:45etan izango da Elizatxon bertan. ||

Galarreta ixtekotan dira

Galarretako enpresak erremontistei jakinarazi die jarduera bertan behera utziko duela martxoaren 31n, arrazoi ekonomikoak direla eta; apustuek, batez ere, behera egin baitute.

GALARRETAK bere atea itxi ditzake betirako martxoaren 31n. Remonte 2000, Galarretako erremonte jaialdiak antolatzeaz arduratzen den enpresak erremontistei jakinarazi die, pelotalekuko jarduera bertan behera utziko duela aipaturiko egun horretan. Eta gauza bera gertatuko

da Uharteko Euskalekin. Juan Antonio Ercilla enpresako gerenteak azaldutakoaren arabera, arrazoi ekonomikoak daude erabakiaren atzean, azken urtean diru sarrerek behera egin baitute, apustuenak batez ere.

Ercillak gaineratu du lehenago ere itxi zitekeela pelota-

lekua, baina luzatu egin dutela egun horretan bertan bukatzen zaizkielako kontratuak bertako pelotariei.

Konponbidea: bazkide edo enpresa berri bat

Horrez gain, enpresatik azaldu dute itxaropena egongo litzatekeela, erremonteak ja-

rraitu dezan, interesa duen bazkide edo enpresa berri bat agertuko balitz norabide berriarekin. Honi lotuta, pelotariei jakinarazi diete enpresariaren batek jarduera hartu dezakeela, baina ez dute ezer zehaztu. Ercilla ostegunean da azalpenak ematekoa prentsaurrean. ||



Langileren hezkuntza proiektuak babes haundia jaso du

HEZKUNTZA Sailak Hernaniko ikastetxeak batzeko hartu duen erabakiaren aurka, 1.000 pertsona inguru manifestatu ziren atzo Hernaniko kaleetan barrena, Langile Ikastolaren deia erantzunda. Trikitixa doinuak eta koloretako globoak lagun, Langile Ikastolako lehengo eta oraingo irakasle, guraso, ikasle eta langileak bildu ziren; eta argi utzi zuten, berriz ere, Langile Ikastolaren proiektuan sinesten dutela eta beraienari eutsiko diotela. Hezkuntza Saila zuzentzen duen Isabel Celaari eskaera argia egin zioten: «Utzi alde batera interes ekonomiko eta politikoak eta babestu gure eskola publiko sendo eta parte hartzailea, 2 urtetik 16 urte bitartera jarraipen osoa duena». ||

**gse**
Asesoreak
Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua
Kardaberaz 40 behea
Telfnoa: 943 55 02 54 - Faxa: 943 33 58 01
www.gseasesores.net

**ITXASPE**
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Möbila: 653 74 10 97
20120 Hernani

Aseguruak  **CATALANA OCCIDENTE**



Atzieta 30
Telf - 943-332440
Fax - 943-556602

☎ **TELEFONOAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Castilla** Urbietia 7 - 943 552941 ● **Gauetz:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA **GAUR** Antzeko eguraldia egingo du. Hego ukituko haizea indartsu ibiliko da. Zerua guztiz lainotuta ez, baina noizean behin zaparrada txikiren bat botatzeko arriskua izango da.
BIHAR Ez da aldaketarik espero. Hego-mendebaldeko haizea harro ibiliko da eta ostarteak izan arren, euria egin dezake. Giro epelarekin jarraituko dugu. (euskaimet)

ATEZ ATEKOA - UDALAREN PRENTSA DHARRA

«Hernaniarrek autokonpostaren aldeko apostu sendoa egin dute»

UDALAK azaldu duenez, bigarren kanpaina oraindik hasi gabe, «dagoeneko 300 familiek eman dute izena etxean konpostatzeko. Hernaniarrek autokonpostatzearen aldeko apostu sendoa egin dutenaren seinale da», azaldu dute. Emandako datuen arabera,

«Hernaniko familien %0,96 izatetik %4 izatera pasa da, inguruko herrietan bere horretan jarraitzen duten bitartean: Donostian %0,27, Lasarte-Orian %0,33 eta Urnietan %1,53».

Horrez gain, azaldu dute kanpainak martxan jarraitzen duela: «datorren asteartean,

etxean konpostatzen ikasteko beste bi ikastaro emango dira Biterin, eta 40 kaxa banatuko dira. Etxean konpostatzea eta hondakinen tasan %40ko bonifikazioa jasotzea erabaki duten herritarren eskakizunari modu gradualean erantzuten jarraitzea da asmoa». II

Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Ekologia erreferendumera?

Nire ustez, Atez Atekoa da modu egokiena kontzientziatu gabeko jendeak bere zaborra, sailkatu gabe, ez botatzeko kontenedore berde/grisera. Eta kontzientziatua dagoenari orain arte izan ez duen aukera ematen dio; hau da, hondakin organikoa banatzea konposta egiteko. Modu horretan, datuen arabera, %80a da berreskuratzen den zaborra eta azken kondarrak %20ra murrizten dira. Ondorioz, planetari guxtiago eragiten zaio, nahikoa kutsatua badagoena, eta baita bertan bizi garenoi ere.

Baina, arazo batzuegatik kaltetuak izan direnak gustora ez egotea, ostalariak, janari dendatakoak... eta zenbait bizilagunen beldurrak etxebizitzaren itxura

dela eta, edo izan dezakeen usaina dela eta... nahikoa arrazoi izan dira firma bilketa bat martxan jartzeko erreferenduma eskatuz. Inigok (Kronika 10/02/10) argi azaltzen du arazo horiek konponduta ere, erreferenduma antolatuko lukeela “beti defenditu izan dugun bezala, herriak erabakitze eskubidea eduki behar duelako”.

Uste dut gai honen inguruan erreferenduma bat proposatzea, legala eta herri plataforma batek bultzatua izanda ere, akats haundia dela: (“akats bat ez da egi bihurtzen mundu guztiak horretan sinesten duelako”, Gandhi). 1.- Ez ditu konpontzen sortu diren arazoak. 2.- Ezezkoa ateratzen bada, orain arte bezala jarraituko dugu: borondatezko birziklapenean oinarrituta, he-

rrietako zaborra igotzen doan bitartean; %46 Estatuan, 1996etik 2005era (Greenpeace).

Honekin, jarrera aldaketa bat proposatzen da sortzen ditugun hondakinen inguruan, kontsumismoa eta natura suntsitzea nagusi diren gizarte honetan. Eta niretzako errausgailua egitea edo ez egitea baino gehiago da; zaborra lurperatu edo itsasora botatzea baino gehiago. Defendatu ezin diren konponbideak guztiak.

Benetan dauden arazoak konpondu behar dira, Atez Atekoa ahal den gehiena moldatu behar zaie bizilagun, merkataria eta ostalariei, baina denok helburua zein den ahaztu gabe: ahalik eta hondakin gutxien sortzea.

Jaione Zubeldia Tellechea
*Erredakzioan euskeratua

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA			ERRUGBIA		
E. Ohorezko Maila	Hernani-Real Union	3-2	Senior	Hernani-Oviedo	13-3
Jubenila. L. Nazio.	Ariznabarra-Hernani	2-0	Jubenilak finaler.	Zarautz-Hernani	14-27
Jubenila. 1. maila.	Hernani-Trintxerpe	6-1	Kadeteak finaler.	Independiente-Hernani	20-47
Jubenila. 1. maila.	Hernani-Intxaurren	0-2	WATERPOLOA		
Kadeteak. O. maila	Hernani-Amaikak bat	3-1	Senior mutilak	Hernani-Tximistarri	10-5
Kadeteak. 1. maila	Luberri-Hernani	4-1	Senior neskak	Hernani-Maristas/Sestao	7-3
Kadeteak F-11	Hernani-Luberri	1-2	ARETO FUTBOLA		
Infantilak	Real Union-Hernani	2-2	3. maila Igo. F.	Aidur-Berastegi	6-5
Infantil Txiki	Lagun Onak-Hernani	3-1	SASKIBALOIA		
PELOTA - Berria Txapelketa			Seniorrak	Teklan HKE-Kevian Sport	62-64
			Jubenilak	Mundarro-Hernani	53-74
			Kadeteak	Beasain-Hernani	66-85

ERRUGBIA

Lehenengo taldeak 13-3 irabazi zuen atzo eta kadete eta jubentilek ere irabazi egin zituzten semifinaletako joaneko partidua

Hernanik 13-3 irabazi zuen atzo Oviedoren aurka. Batez ere, aurreko jokoa izan zen nagusi eta bi aurrelariak parekatuta ibili ziren. Atzean, berriz, Hernanik dominatu zuen, baina epaileak ez zuen askorik lagundu, jokua gehiegitan moztu baitzuen. Hernanik atzoko garaipenarekin lider jarraitzen du ligan, baina datorren partidua irabazi beharra dauka postua mantentzeko; izan ere, Bartzelonak (bigarren sailkatuak), irabazi egin zuen atzo eta lau puntutara dauka.



Horrez gain, aipatzekoa da infantilek eta kadeteek lortutako emaitza onak. Bi taldeak Euskal Ligako semifinaletako joaneko partidua jokatu zuten atzo eta biek irabazi egin zuten. Itzuliko partidua etxean jokatuko dute eta finalera pasatzeko aukerak ikusten dira. II

Atez ateko zalantzak argitzen

Porexpana nora bota behar da?

Ontzia txikia denean, janari-bandajak esaterako, ontzi arinekin ateratzen da. Handia denean, ordenagailuen enbalajea kasu, errefusa da.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



IRAGARKI MERKEAK

Frantsesa ikasi nahi dut eta irakasle partikular baten bila nabil. Deitu: 943 33 30 65.

Pisua salgai Sagastialden. 2 logela, sukaldea, komuna eta saloia, amueblatua. (27.000.000 pztla). Deitu: 637 959 992 / 630 118 545.

Garajea alokairuan Akarregin (autokarabana batentzako). Deitu: 609 767 673

Pisua salgai Karabalen. 60m2, 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua. Deitu: 627 403 119.

Pianoa salgai. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoa. Ongi zaindua. 2.500 euro. Deitu: 629 763 041.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzietan 2, behean. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebra, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antzietan 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Zure arazo eta blokeo pertsonalekin lagunduko zaitut. Bide hauek erabiliz: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach... (Alicia C.C.). Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Hernanik kronika

10. urteurrena

LARRE-GAIN



Martxoaren 12an
Larre gain sagardotegian
gaueko 20:00etan

Afaria + Bertsoak + kontzertua

TXARTELAK ASTE HONETAN SALGAI.

